


Lehen hezkuntza (LH 1 eta LH 2)

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 2 / Ondoren 3

IKASGAIA	GAI EKOSOZIALAK	INGURUMEN-POLITIKAK
Natura, gizarte, kultura ingurunearen ezagutza	<ul style="list-style-type: none"> Ekodependentzia Krisi zibilizatorioa 	<ul style="list-style-type: none"> Biodibertsitatea Ohitura jasangarriak



Ikas egoeraren markoa

TESTUINGURUA. Ia edonork dauka etxetik atera eta zuhaitz bat nahiko gertu, baina ba ote dakigu benetan ze onura dituen guretzako? Landareak izaki bizidun oso garrantzitsuak dira gure planetan, oxigenoa, elikagaiak eta beste onura asko ematen dizkigutelako. Beraiek gabe ezingo litzateke gure lur planetako bizitza aurrera eraman, baina gizakia etengabe landaredia suntsitzen ari da. Nola da hau posible?



Abiapuntua

Landareak maitatzeko eta errespetatzeko ezagutu egin behar dira. Beharrezkoa da landareen mundu harrigarria ezagutzea, hauen bizi-zikloa, landareen zatiak, funtzioak eta, zergatik ez, landare batzuk identifikatzen ikastea. Ezagutza hauek guztiak lagunduko diote ikasleari ingurunea beste modu batera ikusten eta norberak egin ditzakeen aldaketak barneratzen.

AZKEN EKOIZPEN EDO PRODUKTUA. Ekoetxean egindako hazi bonbaz gain, beste hazi batzuk ere izango dituzte landareen munduan murgiltzen eta esperimendatzen hasteko. Lur zati bat edo mazeta txiki bat besterik ez dute behar. Nork daki! Beharbada etorkizuneko baserriar, lorezain, nekazari, laborari jasangarriak bihurtzen ariko gara.




HELBURU KOMPETENZIALAK

- Inguruan dauden landare motak ezberdintzatzea (zuhaitzak, zuhaixkak eta belarrak) eta haien ezaugarriak ezagutzea.
- Landare baten bizi-zikloaren etapak ulertzea (hazia, plantula, landare gaztea, landare heldua, fruitua).
- Landare baten zatiak (sustraiak, zurtoina, hostoak, loreak, fruituak) ezagutzea eta haien funtzioak ulertzea.
- Fotosintesiaren prozesua sinpleki ulertzea (argia, urak, karbohidratoak).
- Landareak zaintzeko oinarrizko aholkuak ezagutzea (ura ematea, eguzkiaren beharra, lurraren egoera).
- Ekoetxea inguruan dauden hainbat landare beriztea.
- Lankidetzeta eta talde-lana sustatzea.

Curriculumaren zehaztapenak

NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP	DESK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,3 1,2 1,2,4,5,6 1 4 1,4 1 1,2	5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunekeko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.	<p>5.1 Natura-, gizarte- eta kultura ingurunekeko elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak ezagutzeko, ikerketa-metodologiaren bidez, eta tresna eta prozesu egokiak modu antolatuan erabiltzea.</p> <p>5.2 Ingurune natural, sozial eta kultural hurbileko elementuen arteko konexio erraz eta zuzenak ezagutzeko, modu gidatuan.</p> <p>5.3 Irudi eta adibide zehatzen bidez, ideia zientifikoak aurrerapen teknologiko, kultural eta sozialekin erlazionatzea, bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetzen dutela aitortuz.</p> <p>5.4 Ondare naturala eta kulturala errespetatzeko eta gozatzeko jarrerak erakustea, eta zaintzea eta kontserbatzea beharrezkoa den ondasun komun gisa aitortzea.</p>	<p>A. Kultura zientifikoa</p> <p>2. Bizitza gure planetan</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izaki bizidunen oinarrizko beharrak eta objektu bizigabeekiko desberdintasuna. Bizi zikloa eta heriotza haren zati gisa. - Izaki bizidunak beha daitezkeen ezaugarrien arabera sailkatzeko eta identifikatzeko jarraibideak. - Izaki bizidunaren eredu baten eraikuntzara hurbiltzea.* - Izaki bizidunen egokitzapenak beren habitatera, beren beharrak asetzen dituzten leku gisa ulertuta.*




Lehen hezkuntza (LH 1 eta LH 2)

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 2 / Ondoren 3

NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA (BIGARREN ZIKLOA)

FUNTZ. KONP	DESK	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3,5 1,2,3 1,2,5,6 2,3,5 4 1,2,3,4 1,2,3 1	6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarritz, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.	6.1 Bizi-ohitura jasangarriak erakustea, planetako bizitza mota guztiak errespetatzeko, zaintzeko eta babesteko beharraz jabetuta. 6.2 Eremu hurbileko elementu eta baliabideekin lotuta, esplizituki eta adibideen bidez identifikatzea pertsonen bizitzak beren ekintzekin duen erlazioa. 6.3 Ingurune hurbileko arazoak banaka eta taldean antzematea eta soluzio posible batzuk proposatzea.	A. Kultura zientifikoa 2. Bizitza gure planetan - Izaki bizidunak eta haiek bizi diren ingurunea zaintzeko eta errespetatzeko ohiturak.* C. Gizarteak eta lurraldeak 4. Kontzientzia ekosoziala - Gure ingurunea ezagutzea. Paisaia naturalak eta paisaia gizatiartuak, eta horien elementuak. - Ingurunearen gaineko giza ekintza eta horren ondorioak.* - Erantzukizun ekosoziala. Ondasun komunak kontserbatzeko, hobetzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko ekintzak. Animaliekiko tratu txarra eta horren prebentzioa.*
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1,2,3 1,2 4 1,4,5 4 1,3 2 1	7. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitate-, aldiberekotasun- eta ondorengotza-erlazioak aztertuta, elementuen eta gertaeren arteko harremanak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko.	7.1 Natura-, gizarte- eta kultura inguruneko hurbileko gertaerak kronologikoki antolatzea, neurtzeko eta denboran kokatzeko oinarrizko nozioak erabiliz, historiako pertsona garrantzitsuekiko, iraganeko bizimoduekiko eta horien bilakaeraren garrantziarekiko jakin-mina erakutsita.	C. Gizarteak eta lurraldeak 1. Egungo munduaren erronkak - Lurra unibertsoan. Barne- eta kanpo-elementuak, Lurrarekin eta unibertsoarekin lotutako mugimenduak eta dinamikak, eta horrek eguneroko bizitzan eta ingurunean dituen ondorioak. Denbora-sekuentziak eta urtaro-aldaketak.*



Ikuspegi ekosoziala

IKASKUNTZA EKOSOZIALA

- * Giza ekodependentzia barneratzea. Bizitzaren sarearen parte garela ohartzea



- * Biosfera gurtzea. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen dela dioen ideiarekin ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentrismoa ekozentrismoa igarotzea.

EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK


- * Gizakiak gainerako izaki bizidunak behar dituela adieraztea/Ez adieraztea gizakiak ez dituela gainerako izaki bizidunak behar.

- * Beren ingurune naturalean bizi diren izaki bizidunen aniztasunaren edertasunari balioa ematea.
- * Biodibertsitatea babesteko ekintzak egitea.
- * Natura gizakiek kontrola dezaketela edo kontrolatu behar dutela dioen ideiarekin aurrean ikuspegi kritikoa adieraztea.

OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- * Ekodemokotasunaren kontzeptua. Gizakiak bere beharrak modu autonomoan asetzeko ezintasuna, naturaren laguntzarik gabe.
- * Funtzio ekosistemiko nagusiak: ongarriztea, ura eta airea araztea, polinizazioa, klima erregulatzea, etab.
- * Ekodependentzia ikusezina (ekodependentzia dugun eguneroko bizitzako alderdiak).
- * Biosfera gizartea eta ekonomia baino askoz ere handiagoa da, eta ulertzen ditu.

- * Lurraren eskubideak. Lurra subjektu gisa, ez menderatu beharreko objektu gisa.
- * Natura zaintzearen garrantzia.
- * Edertasuna izaki bizidunen aniztasunean eta oreka ekosistemikoetan.



Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentzia da FUHEM.

Lehen hezkuntza (LH 1 eta LH 2)

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 2 / Ondoren 3



Metodologia



ESTRATEGIA

EREDU
PEDAGOGIKOA:Arazoetan
oinarritutako
ikaskuntzaGogoetan
oinarritutako
ikaskuntza

Gamifikazioa

ESTRATEGIA
EKOSOZIALAKIkuspegi
sozioafektiboaEkintzarako
ikaskuntzaIkaskuntza
aktiboaIkuspegi holistiko
eta kritikoa

TEKNIKAK

OHIKOAK:

Tailerrak

Ikus-entzunezkoak

Txoko edo
ingurunezkoak

Entzute kolektiboa

Azalpenak talde
handietan